

DONOSTIAKO UDALA

Iragarkia

Donostiako Tokiko Gobernu Batzordeak 2016ko maiatzaren 17an onartu zuen Informazioaren Segurtasunerako Politika.

Informazioaren Segurtasunerako Politika hau, aurrerantzean Politika, adierazitako datatik egongo da indarrean, eta hala jarraituko du Politika berri batek ordezkatzeko duen arte.

SARRERA

Administrazio Elektronikoaren garapenak berekin batean dakar informazioaren eta komunikazioen teknologia sistemak informazio kopuru handi bat erabili behar izatea. Sistema horiek kaltetu ditzaketen mehatxu eta kalteberatasun mota desberdinen mende dago informazioa. Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren helburua da informazio sistemak konfiantzazkoak izatea, dagokien funtzio zehatzen arabera beren zerbitzuak etenaldirik gabe edo kontrolaz kanpoko aldaketarik gabe eskaintzea eta gordetzea, eta informazioa baimendu gabeko pertsonengana ez iristea.

Segurtasun Eskema Nazionala betetzeko xedean, Donostiako Udala, informazio sistemak kaltetu ditzaketen arriskuen berri izanda, herritarren eskura jarritako izapide elektronikoak bideratu behar baitituzte, eta kontuan izanik herritarrek Udalaren eskura jartzen dutela beren aktiborik baliotsuena, "beren informazioa", ongi asko jabetzen da informazio sistemak behar bezala kudeatu behar direla, eta hartu beharreko neurriak hartu behar direla tratatutako informazioari edo eskaintako zerbitzuen erabilgarritasunari, osotasunari edo konfidentzialtasunari nahi gabe edo nahita egin dakizkiekeen kalteen aurrean.

Honenbestez, Segurtasun Eskema Nazionalaren (SEN) baitara biltzen diren Donostiako Udaleko sail eta/edo arlo guztiek oso kontuan dute ICTren segurtasuna sistemaren bizi-zikloaren etapa bakoitzaren osagaietako bat dela, sistema itxuratzen denetik zerbitzutik baztertzeko den arte, garatzeko edo eskuratzeko erabakietatik eta ustiatzeko jardueretatik igaroz. Segurtasun baldintzak eta finantzazio beharrak zehatz identifikatu eta jaso behar dira plangintzan, eskaintzen eskaeran eta ICTren proiektuen alorreko lizitazio pleguetan.

Beraz, Donostiako Udalarentzat, informazioaren kalitatea eta zerbitzuen eskaintza etengabea bermatzea da Informazioaren Segurtasunaren xedea; horretarako, eguneroko jarduna gainbegiratuko du edozein gorabehera hautemateko, eta prestasun osoz jardungo du gorabehera horiei aurre egin eta ahalik eta lasterren berregokitzeko, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen legearen 7. artikuluan xedaturikoari jarraiki.

Prebentzioa

Segurtasunaren alorreko gorabeherak informazioa eta/edo zerbitzuak kaltetu ez ditzaten, Donostiako Udalak Segurtasun Eskema Nazionalak ezarritako segurtasun neurriak txertatuko ditu, baita mehatxuen eta arriskuen ebaluazio bat oinarri hartuta beharrezkotzat jotzen duen beste edozein kontrol mota ere. Kontrol horiek eta langile guztiek segurtasunaren alorrean dauzkaten erantzukizun eta rol guztiak argi eta garbi zehaztuta eta dokumentatuta daude.

Politika beteko dela bermatzeko, Donostiako Udalak:

- Jardunean hasi baino lehen baimenduko sistemak ditu sistemak.

- Erregularitasunez ebaluatuko du segurtasuna, egin ohi diren konfigurazio aldaketen ebaluazioak barne.
- Aldian behin hirugarrenek berraztertzea eskatuko du, ebaluazio independente baten emaitzak lortzeko.

Hautematea

Donostiako Udalak bere informazio sistemen jarduera kontrolatzeko neurriak ezarriko ditu zerbitzuen eskaintzan gerta litezkeen anomaliak hautemateko eta Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen legearen 9. artikulua (aldian behin beste ebaluazio bat egin beharra) xedaturikoaren arabera jarduteko. Aldez aurretik normalizat finkatutako parametroak (aipatu legearen 8. artikuluan finkatutakoaren arabera. Defentsa lerroak) modu esanguratsuan desbideratzen direnean, horiek hautemateko, aztertzeko eta berregokitzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko ditu gorabehera horiek arduradunengana erregularitasunez irits daitezzen.

Erantzuna

Honako neurri hauek finkatuko ditu Donostiako Udalak:

- Segurtasunaren alorreko gorabeherari modu eraginkorrean erantzuteko mekanismoak,
- Beste sail edo beste erakunde batzuetan hautemandako gorabeherari dagokienez, komunikazioetarako ukipen puntu bat zehaztuko du.
- Gorabeherarekin zerikusia duen informazioa trukatzeko protokoloak finkatuko ditu. Hortaz, komunikazioak izango dira, bi noranzkoetan, Larrialdiei Erantzuteko Taldeekin (CERT).

Berreskuratzea

Zerbitzuen baliagarritasuna bermatzeko xedean, Donostiako Udalak beharrezkoak diren baliabideak eta teknikak dauzka zerbitzu garrantzitsuenen berreskuratzea bermatzeko. Donostiako Udalaren 2012ko maiatzaren 18ko Segurtasun Dokumentuan jasotako prozedurak eta arauak dira horiek.

Datuen segurtasuna

Datu pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 9. artikuluan eta lege horren garapenerako araubidea onartzen duen 1720/2007 Errege Dekretuaren 89. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta baimenik gabe datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo horietan sartzea saihesteko beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa izaerako neurriak hartuko ditu Donostiako Udalak. Zentzu horretan, aintzat hartuko ditu baita Donostiako Udaleko Segurtasun Dokumentuak finkatutakoak ere datu pertsonalak, datu horiek dauzkaten fitxategiak, euskarriak eta dokumentuak, auditoriak, kontrol neurriak, segurtasun kopiak, erabiltzaileen administrazioa, gorabeheren jakinarazpena eta kudeaketa, datuak berreskuratzea, datu pertsonalak eskuratzeko eskubidearen erabilera, zuzenketak egiteko eta uzteko eskubideak erabiltzeko prozedura, sarrera fisikoaren kontrola eta beste batzuk kudeatzeko arauak eta prozedurak.

DONOSTIAKO UDALAREN MISIOA

Donostiako Udalak, bere interesak eta bere esku dauden zereginak eta eskumenak kudeatzeko xedean, herritarren premiak eta nahiak asebetetzen laguntzen duten zerbitzuak eskainiko ditu eta jarduerak sustatuko ditu. Horretarako, herritarren eskura jarriko du izapideak online egiteko aukera, herritarrek gai publikoetan parte hartze handiagoa izan dezaten; horrenbestez ezarriko ditu parte hartzeko bide berri batzuk demokrazia parte hartzailearen garapena eta ekintza publikoaren eraginkortasuna bermatzeko xedean.

Bestalde, teknologia berrien erabilera bultzatu nahi da Udalean bertan eta herritarren artean. Besteak beste, honako hauek dira helburu nagusiak: herritarren eta Udalaren arteko harreman elektronikoa sustatzea eta harreman horretan herritarren eta Udalaren artean beharrezkoa den konfiantza sortzea.

IRISMENA

Ikuspuntu bikoitz batetik finkatuko da irismena; alde batetik, antolamenduaren ikuspuntutik, eta bestetik, informazio sistemen edo eginkizunen irismenaren ikuspuntutik.

Azken horri dagokionez, Donostiako Udaleko informazio sistemari aplikatuko zaie Politika hau, sistema horiek baliabide elektronikoen bidezko eskubideen erabilerarekin, baliabide elektronikoen bidezko betebeharren betetzearekin eta informazioa eskuratzeko jardunarekin edo administrazio prozedurarekin zerkusua baldin badute. Badira administrazioen eta herritarren arteko harremanetarako erabiltzen diren baliabide batzuk, enpresa pribatuek sortuak eta oraindik mantentzen dituztenak. Izan ere, enpresa pribatu batzuek garatu dituzte aplikazio eta web orri batzuk udaleko departamentuek eta udal erakunde batzuek eskatuta. Horiei dagokienez, Segurtasun Eskema Nazionalaren esparruan txertatu behar dira, eta enpresa horiei jakinarazi behar dira zaizkie Udalaren, bere erakunde autonomoen eta bere elkarte publikoen segurtasun alorreko irizpideak, baliabideak segurtasun baldintza horietara egokitu ditzaten.

Antolamenduaren ikuspuntutik eta Segurtasun Eskema Nazionalari dagokionez, betebeharrek zuzenean lotzen dituzte Donostiako Udala eta bere erakunde autonomoak: UIZ, Musika Eskola eta Donostia Kirola. Baina Donostiako Udalaren eginkizuna da Udalak nola zuzenean hala zeharka betetzen dituen zeregin guztiak kontuan hartzea, eta beraz, Polloe S.A eta San Sebastián Turismo S.A. Elkarte Publikoak ere aintzat hartuko ditu, Informazioaren Segurtasunerako Politika hau guztiz bere egin baitute eta Informazioaren Segurtasun Batzordean parte hartuz, bertara erabat biltzeko erabakia hartu baitute. Informazioaren Segurtasunerako Politika hau eta Segurtasun Batzordea prest daude gainerako elkarte publikoetan aurrez adosten den mailan txertatzeko.

Lau dira erakunde publikoak eta elkarte publikoak politika honetan biltzeko eta sartzeko ahaleginaren arrazoiak: 1.- udalak berezko dituen eskumenetatik abiatzen diren zerbitzuak eta izapideak eskaintzen ari dira elkarte horiek, eta beraz, derrigorrezkoa da sistemen segurtasuna eta datuen babesa bermatzea; 2.- segurtasunaren alorrean gorabeherak baldin badira, Udala bera da erantzule nagusia, eta Udaleko zinegotziak eta alkatea dira elkarte horietako kontseilariak; 3.- informazioaren segurtasunaren alorrean arau batzuk, irizpide batzuk eta partekatutako ardura batzuk finkatuta kohesio handiagoa eta zerbitzu hobea ahalbidetzen dira, eta 4.- herritarrek badakite udala elkarte horietan ari dela, eta elkarte horien jardueren erantzule nagusia udala da haien arabera.

Donostiako Udaleko kide guztiek, Segurtasun Eskema Nazionalaren irismenaren eremuan ari direnek, nahitaez ezagutu eta bete behar dituzte "Informazioaren Segurtasunerako Politika" hau eta segurtasunaren alorreko araudia, eta Informazioaren Segurtasun Batzordearena izango da informazioa dagokien langileei helarazteko beharrezkoak diren bitartekoak eskuragarri jartzeko ardura.

ARAU ESPARRUA

Honako araudi hauek biltzen ditu Donostiako Udalaren jarduerak garatzeko eta, bereziki, herritarrei bere zerbitzu elektronikoak eskaintzeko arau esparruak:

- a) 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena.

- b) 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, indarrean dagoen bitartean.
- c) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, indarrean jartzen denean.
- d) 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, indarrean jartzen denean.
- e) 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
- f) 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa Garatzeko Araudia onartzen duena.
- g) 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, herritarrek Zerbitzu Publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa, indarrean dagoen bitartean.
- h) 1671/2009 Errege dekretua, azaroaren 6koa, herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- i) 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen, apirilaren 21eko 11/1999 legeak aldatua.
- j) 57/2003 Legea, abenduaren 16koa, tokiko gobernua eraberritzeko neurriei buruzkoa.
- k) 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza Intelektualari buruzko Testu Bategina onartzen duena.
- l) 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa.
- m) 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, sinadura elektronikoki buruzkoa.
- n) 1553/2005 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, nortasun agiri nazionala eta horren sinadura elektronikoko ziurtagiriak nola eman arautzen duena.
- o) 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- p) Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (119. zk.), 2008ko ekainaren 23koa; horren bidez ematen zaio behin betiko onarpena Donostiako Udaleko Administrazio Elektronikoari buruzko Araudiari.

Era berean, arau esparru honetara biltzen dira Donostiako Udaleko Administrazio Elektronikoari aplikatu dakizkiokeen beste arauak, goian adierazitakoetatik eratorriak badira eta Politika honen aplikazio esparruaren baitara biltzen diren egoitza elektronikoen argitaratuak izan badira. Eta aintzat hartuko da Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak 2012ko maiatzaren 18an onartutako Segurtasun Dokumentua.

SEGURTASUNAREN ANTOLAKUNTZA

Antolakuntzaren egitura

Informazioaren segurtasunerako rolak

Informazioaren Segurtasunean honako hauek dira funtsezko rolak:

- Informazio arduradunak: Lehendakartzako Zuzendaritzako Teknikari Juridikoa izango da.
- Zerbitzu arduraduna: Lehendakartzako Zuzendaria izango da
- Segurtasun Eskema Nazionalako segurtasun arduraduna; Berrikuntza arloko Zuzendaria edo Garapen Teknologikoak arloko Zuzendaria izango da
- Informazio arduraduna; Lehendakartzako Arloko Teknikari Juridikoa izango da
- Segurtasun Eskema Nazionalaren Sistemen arduraduna; Ekoizpen Burua izango da

Erakunde Autonomoen sistemen kasuan, baldin eta sistema hauek Donostiako Udaleko Informatika Zentroak gestionatzen dituen zerbitzuen eremutik kanpo gelditzen badira, erakunde hauek Segurtasun Batzordean duten ordezkariak bere gain hartuko du zerbitzu hauen Segurtasun eta Sistemen arduradun rola.

Segurtasun Batzordeak zainduko ditu datuak babesteko politikak eta segurtasunerako rolak

Segurtasun Batzordea

Honako kargu eta pertsona hauek osatuta dago Segurtasun Batzordea:

- Lehendakaria: Lehendakaritza eta Gardentasuna, Giza Baliabideak eta Berrikuntza arloko zinegotzi ordezkaria
- Idazkaria: Antolakuntza eta Kalitatea Zerbitzuko Burua.
- Segurtasun Eskema Nazionalako segurtasun arduraduna; Berrikuntza edo Garapen Teknologikoak arloko zuzendaria
- Segurtasun Eskema Nazionalaren Sistemen arduraduna; Ekoizpen Burua
- Zerbitzu arduraduna: Lehendakaritzako Zuzendaria
- Informazio arduraduna; Lehendakaritza Zuzendaritzako Teknikari Juridikoa
- Erakunde autonomoetako Segurtasun Eskema Nazionalaren Sistemen arduradunak edo haiek ordezkatzeko dituztenak
- Donostia Kultura, Turismoa, Sustapena, Etxegintza, Anoeta Kiroldetgia eta Polloe Elkarteko Segurtasun Eskema Nazionalaren segurtasun arduradunak

Segurtasun Eskema Nazionalaren roletan ardurak dauzkaten gainerako pertsonen ere dei egingo zaie, Informazioaren Segurtasun Batzordearen beharrezkoen arabera. Era berean, Informazioaren Segurtasun Batzordearen beharrezkoen arabera, dei egingo zaie udal arlo bakoitzeko Segurtasun Eskema Nazionalaren Segurtasun arduratzen diren pertsonen.

Informazioaren Segurtasun Batzordearen ohiko bilerak sei hilabetean behin egingo dira, baina bilera berezietarako deiak egin ahal izango dira beharrezkoen edo zirkunstantziak eskatzen duten bakoitzean.

Segurtasun Eskema Nazionalari atxikitako Erantzukizunen eginkizunak

Jarraian adierazten eta finkatzen dira irudi bakoitzaren eginkizunak eta erantzukizunak:

- ◆ Zerbitzuko Arduradunak: Segurtasun Eskema Nazionalaren Segurtasun Arduradunak proposatu eta gero, urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren I. Eranskinean xedatutako esparruaren baitan emandako zerbitzuen segurtasun baldintzak finkatuko ditu.
- ◆ Informazio Arduradunak: Segurtasun Eskema Nazionalaren Segurtasun Arduradunak proposatu eta gero, urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren I. Eranskinean xedatutako esparruaren baitan emandako informazioaren segurtasun baldintzak finkatuko ditu.
- ◆ Segurtasun Eskema Nazionalaren Segurtasun Arduradunak: segurtasunaren alorrean egin beharrezkoak planifikatuko ditu, eta egindakoak ikuskatuko ditu.
- ◆ Sistema Arduraduna: sistemaren operazioez arduratuko da.

Informazioaren Segurtasun Batzordearen eginkizunak

Honako eginkizun hauek izango ditu Segurtasun Batzordeak:

- ◆ **Informazioaren Segurtasunaren alorrean**, Udalak eta arlo desberdinek agertzen dituzten **kezkei erantzun die**, eta erregularitasunez jakinaraziko dio Alkatetzari Informazioaren Segurtasunaren egoerari buruz.
- ◆ Eskatzen zaion bakoitzean, **Informazioaren Segurtasunaren alorreko aholkuak emango ditu**.

- ◆ **Hirugarrenen aurrean** (erakunde pribatuak eta beste Herri Administrazio batzuk) DBLOren segurtasun arduradunaren irudia ordezkatu du zeharkako ekintzetan. DBLOren segurtasun arduradunek eta fitxategietako arduradun ordezkariak segurtasunaren egoeraren aldeko txostena solidarioki igorri ondoren bermatuko da ordezkariak.
- ◆ Udaleko Arlo/Departamendu desberdinen artean eta/edo **arduradun desberdinen artean gerta litezkeen erantzukizun izaerako gatazkak konponduko ditu**, eta erabakiak hartzeko nahikoa aginterik ez duen kasuetan, goragoko maila batera eramango ditu horiek.
- ◆ **Bere egingo ditu Segurtasun Eskema Nazionalaren Informazio eta Zerbitzu Arduradunen betebeharrak eta eginkizunak**, halakoak eskatzen zaizkion eta/edo beharrezkotzat jotzen diren zeharkako ekintzetan.
- ◆ **Informazioaren Segurtasunaren kudeaketa sistemaren etengabeko hobekuntza sustatuko du.** Horretarako,
 - **Koordinatu egingo ditu** Informazioaren Segurtasunaren alorreko arlo/zerbitzu desberdinen **ahaleginak**, ahalegin horiek sendoak izan daitezen, gai honen inguruan erabakitako estrategiarekin bat etor daitezen eta bikoizketak saihestu daitezen.
 - Udalaren Informazioaren Segurtasuna **hobetzeko planak proposatuko ditu**, dagokion aurrekontu hornikuntzarekin eta baliabideak mugatuak direnean segurtasunaren alorreko jarduerari lehenetsua emanez.
 - Proiektu guztietan, hasieran zehazten direnetik hasi eta abian jartzen diren arte, Informazioaren Segurtasuna aintzat hartzea zainduko du (**Privacy by Design**). Bereziki zainduko du bikoizketak murriztuko dituzten eta IKT sistema guztien funtzionamendu homogeneoa sustatuko duten zerbitzu horizontalak sortzea eta erabiltzea.
 - Udalak bere egiten dituen **hondar-arrisku nagusien gaineko jarraipena egingo du**, eta haiei aurre egiteko balizko jarduerak gomendatuko ditu.
 - **Segurtasunaren alorreko gorabeheren kudeaketaren gaineko jarraipena egingo du**, eta haiei aurre egiteko balizko jarduerak gomendatuko ditu.
- ◆ **Informazioaren Segurtasun Politika prestatuko du (eta erregulartasunez ikuskatuko du)** Udaleko Organo Nagusiak onartu dezan.
- ◆ Donostiako Udalarekin koordinatuta, **Informazioaren Segurtasunari buruzko araudia prestatuko du**, onartua izan dadin.
- ◆ **Informazioaren segurtasunerako prozeduren** eta gainerako dokumentazioaren **egokitasuna egiaztatuko du**.
- ◆ Informazioaren Segurtasunaren alorrean eta bereziki datu pertsonalen babesaren alorrean **langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko prestakuntza programak prestatuko ditu**.
- ◆ **Informazioaren Segurtasunaren ikuspuntutik, administratzaileen, langileen eta erabiltzaileen prestakuntza eta kalifikazio baldintzak prestatuko eta onartuko ditu**.
- ◆ **SEN eta DBLOren aldirio behingo auditoriak egitea sustatuko du**, Udalak segurtasunaren alorrean dauzkan betebeharrak betetzen dituela egiaztatu ahal izateko.

Izendatzeko prozedurak

Donostiako Udalak egin beharrekoak egingo ditu batzordea osatzeko eta ardurak zehazteko. Izendapen guztiak 4 urtean behin berraztertuko dira, edo postuak bete gabe geratzen direnean.

DATU PERTSONALAK

Donostiako Udalak soilik egokiak, bidezkoak eta ez gehiegizkoak direnean bilduko ditu datu pertsonalak, betiere esparruarekin eta datu horiek eskuratzeko helburuekin zerikusia badute. Era berean, Datuak Babesteko araudia betetzeko beharrezkoak diren izaera teknikoko neurriak eta antolakuntza neurriak hartuko ditu. Donostiako Udaleko Udaltzaren Osoko Bilkurak onartutako Segurtasun Dokumentuan jasota daude neurri horiek.

LANGILEEN BETEBEHARRAK

Donostiako Udaleko kide guztiek, Segurtasun Eskema Nazionalaren esparruan ari baldin badira, segurtasunaren alorrean kontzientziatzeko aurrez aurreko saioak jasoko dituzte. Hautemandako beharrezkoen arabera, Informazioaren Segurtasun Batzordeak beharrezkotzat eta zentzuzkotzat jotzen duen maiztasunarekin egingo dira saio horiek. Nolanahi ere den, etengabeko kontzientziazio programa da, eta Donostiako Udaleko kide guztiei, Udalaren perimetroko erakunde autonomoetako eta elkarte publikoetako kide guztiei eta bereziki berriki bildu direnei erantzuteko xedea du.

IKT sistemen erabileran, jardueran eta administrazioan erantzukizuna duten pertsonak sistemak modu seguruan erabiltzeko prestakuntza jasoko dute, beren lana behar bezala bideratzeko beharrezkoa duten heinean. Prestakuntza derrigorrezkoa izango da ardura bat inoren gain hartu baino lehen, bai lehenengo aldiz esleitu bazaio, bai lanpostu aldaketa bat izan bada edo ardura aldaketa bat.

ARRISKUEN KUDEAKETA

Politika honek ukitzen dituen sistema guztietan gerta litezkeen arriskuen analisia egingo da, izan ditzaketen mehatxuak eta arriskuak ebaluatzeko xedean. Analisi hori errepikatu egingo da:

- Urtean behin, gutxienez.
- Erabiltzen diren informazioak eta/edo zerbitzuak modu esanguratsuan aldatzen direnean.
- Segurtasunaren alorreko gorabehera larriren bat gertatzen denean edo kalteberatasun larriak hautematen direnean

SENaren Segurtasun Arduraduna arduratuko da arriskuen analisiak egiteaz. Era berean, gabeziak eta alde ahulak identifikatuko ditu eta Informazioaren Segurtasun Batzordeari emango die horien berri.

Segurtasun Batzordeak baliabideen erabilgarritasuna dinamizatuko du sistema desberdinen segurtasun alorreko beharrei erantzuteko; horretarako, inbertsio horizontalak sustatuko ditu.

Honako fase hauek bilduko ditu arriskuak kudeatzeko prozesuak:

1. Sistemen kategorizazioa.
2. Arriskuen analisia.
3. Aplikatu beharreko segurtasun neurriak aukeratuko ditu Segurtasun Batzordeak; neurri horiek justifikatuta egongo dira eta arriskuen tamainakoak izango dira.

Urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinetan xedatutakoari jarraiki eta zentroak horiek aplikatzeko xedean landutako arauak, jarraibideak, CCN-STIC gidak eta gomendioak aintzat harturik bideratuko dira prozesu honetako faseak.

Arriskuen analisia egiteko, bereziki erabiltzen da MAGERIT metodologia. Administrazio Elektronikoaren Kontseilu Nagusiak landutako metodologia da arriskuak analizatzeko eta kudeatzeko (ENISAren arriskuak analizatzeko eta kudeatzeko metodoen zerrendan ageri da MAGERIT).

INFORMAZIOAREN SEGURTASUNERAKO POLITIKAREN GARAPENA

Informazioaren Segurtasunerako Politika hau osatu egingo da segurtasunaren alorreko beste araudiekin eta gomendioekin (politikak, protokoloak, prozedurak, jarraibide teknikoak, etab.).

Era berean, datu pertsonalak babesteko gaian, Donostiako Udaleko segurtasun politikak osatzen ditu Informazioaren Segurtasunerako Politika honek.

Ezagutzeko premia duten Erakundeko kide guztiek izango dute eskuragarri Segurtasun Araudia, bereziki informazio eta komunikazio sistemak erabiltzen edo administratzen dituztenek. Kontsultatzeko hemen egongo da eskuragarri: www.donostia.eus/segurtasundokumentua

HIRUGARRENAK

Donostiako Udalak beste erakunde batzuei zerbitzuak ematen dizkienean edo beste erakunde batzuen informazioa erabiltzen duenean, erakunde horiek ere bilduko ditu bere baitara Informazioaren Segurtasunerako Politikak. Informazioa emateko eta Informazioaren Segurtasun Batzordeak koordinatzeko bideak finkatuko dira, eta segurtasun alorreko gorabeherei berehalakoan erantzuteko jarduera prozedurak finkatuko dira.

Donostiako Udalak hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen dituenean edo informazioa hirugarrenen esku uzten duenean, hirugarren horiek ere zerbitzu edo informazio horiei dagokien Segurtasun Araudia eta Segurtasun Araudi hau beteko dituzte. Hirugarren horiek araudi horretan finkatutako betebeharrak beteko dituzte, eta betebehar horiek betetzeko xedean beren prozedurak garatu ahal izango dituzte. Gorabeheren berri emateko eta gorabehera horiek konpontzeko berariazko prozedurak finkatuko dira. Hirugarrenenen langileak segurtasunaren alorrean ongi kontzientziatuta egotea bermatuko da, gutxienez Segurtasun Politika honetan finkatutako maila berean.

Aurreko paragrafoetan eskatzen den bezala hirugarren batek ezin baldin badu bete Segurtasun Politika honetan jasotako alderdiren bat, Segurtasun Eskema Nazionalaren Segurtasun Arduradunaren txostena eskatuko da, bertan zehaztuko dira sor litezkeen arriskuak eta horiek tratatzeko era. Txosten hori kaltetutako zerbitzu eta informazio arduradunek onartuko dute aurrera jarraitu baino lehen.